

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
4/2011	R16/2013	2013/09/09	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

R 16/2013 ebazpena

4/2011 espedientea

Vitoria-Gasteizen, 2013ko irailaren 9an,

Euskal Autonomia Erkidegoarekin sinatutako Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Carlos Palao Taboada (lehendakaria), Isaac Merino Jara eta Francisco Javier Muguruza Arrese (bokalak) kideekin, honako erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

Zerga Administrazioko Estatuko Agentziak Bizkaiko Foru Aldundiari aurkeztu zion gatazkari buruzkoa, (ERAKUNDEA 1) erakundearen (IFZ LZZZZZZZZ) egoitza fiskalaren gainekoa. Arbitraje Batzordearen aurrean tramitatu da, 4/2011 espediente zenbakiarekin.

I. AURREKARIAK

1. Gatazka hau Zerga Administrazioko Estatu Agentziak planteatu zuen, bere zuzendari nagusiak 2011ko martxoaren 17an bidalitako idatzi baten bidez; idatziak 22an izan zuen sarrera Arbitraje Batzordean. Idatzi horretan azaltzen da ERAKUNDEA 1 (IFZ LZZZZZZZZ) –aurrerantzean, ERAKUNDEA 1 edo “erakundea”– 2004ko uztailaren 20ko eskritura publikoaren bidez eratu zela, Bilboko IZEN-ABIZENAK 1 notarioaren aurrean emana, ERAKUNDEA 2 bazkide bakarraren bidez (sozietateen taldeko kidea), erakundeko administratzaile bakar izendatuta, eta horrek, aldi berean, ordezkari izendatu zuen IZEN-ABIZENAK 2. Erakundearen helbide soziala eta fiskala HELBIDEA 1 helbidean, Toledon, ezarri zen.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
4/2011	R16/2013	2013/09/09	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

2. Planteamenduaren idatziak azaltzen du Zerga Administrazioko Estatu Agentziak ERAKUNDEA 1 erakundearen egoitza fiskala egiaztatzeko prozedura egin zuela, eta, prozedura horretan zehar, bisitak egin zituztela Gaztela-Mantxako Zerga Administrazioko Estatu Agentziako ordezkariak bereziko organoek, 2010eko ekainaren 21ean, 22an eta 29an, dagozkien eginbideetan dokumentatu bezala. Idatzi horrek, bestalde, Madrilgo Zerga Administrazioko Estatu Agentziako eskualdeko ikuskaritzak 2010eko irailaren 28an Madrilgo HELBIDEA 2 helbideko SOZIETATE TALDEAREN bulegoetara egin zuen bisita aipatzen du, egun bereko eginbidean dokumentatuta. Jarduera horiek kontuan hartuta, Gaztela-Mantxako Zerga Administrazioko Estatu Agentziak txostena bidali zuen, 2010eko urriaren 21ekoa, eta, horren arabera, egoitza fiskala Bizkaian izan zuen sortu zenetik, HELBIDEA 3 helbidean.

3. 2010eko abenduaren 23an, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak Bizkaiko Foru Aldundiari erakundearen helbidea Toledoko helbidetik Bizkaiko HELBIDEA 3 helbidera aldatzeko proposamenaren berri eman zion, eratu zen datara atzera eraginez, 2004ko uztailaren 20ra. Ekonomia Ituneko 43.9 artikuluan ezarritako bi hilabeteko epea Bizkaiko Foru Aldundiaren erantzunik jaso gabe igaro ondoren, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak bere proposamena ukatutzat jo zuen, eta gatazka hau planteatu zuen, Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Araudiaren 13.2. artikulua, abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuak onartutakoak, xedatutakoaren arabera.

4. Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren planteamenduaren idatziak, bere jarrera oinarritzen duten aurrekariak eta zuzenbideko oinarriak azaldu ondoren, ondorioztatzen du Arbitraje Batzorde honi eskatzea "ERAKUNDEA 1 erakundeak (LZZZZZZZZ) egoitza fiskala, sortu zenetik, 2004ko uztailaren 20tik, Bizkaian, HELBIDEA 3 helbidean, izan duela" deklaratzeko.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
4/2011	R16/2013	2013/09/09	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

5. Arbitraje Batzordeak onartu egin zuen gatazka izapidetzea, 2012ko urriaren 29ko bileran, eta Bizkaiko Foru Aldundiari esan zion alegazioak egiteko nahi izanez gero, eta hala egin zuen koordinazio eta laguntza teknikoaren zuzendaritzari 2013ko urtarrilaren 16an bidalitako idatziaren bidez. Idatziak Arbitraje Batzordean hurrengo egunean, 17an, izan zuen sarrera; horren bidez, aurrekariak eta zuzenbideko oinarriak kontuan hartuta, Arbitraje Batzordeari eskatu zion deklaratzeko “erakundearen egoitza fiskala lurralde erkidean zegoela”.

6. Espedientea ikustera emateko tramitean, alegazioa aurkeztu zituzten Bizkaiko Foru Aldundiak, 2013ko apirilaren 8ko idatziaren bidez –hurrengo egunean, 9an, izan zuen sarrera Arbitraje Batzordean– eta Zerga Administrazioko Estatu Agentziak, 2013ko apirilaren 29ko idatziaren bidez – Correos zerbitzuaren zigilua du jarrita, hurrengo egunean, apirilaren 30ean–.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Gatazka honen helburua da ERAKUNDEA 1 erakundearen egoitza fiskala zehaztea. Kontu hori ebazteko, Ekonomia Itunaren 43.lau.b) artikulua aplikatu behar da, honakoa xedatzen duela:

“Ekonomia Itun honen ondorioetarako, Euskal Autonomia Erkidegoan helbideratuta daudela ulertuko da, ondorio fiskalei dagokienez:

(...)

b) Euskal Autonomia Erkidegoan helbide soziala duten eta Sozietateei buruzko Zergaren pean dauden pertsona juridiko eta gainerako erakundeak, baldin eta, bertan, administrazio kudeaketa eta beren negozioen zuzendaritza behar bezala zentralizatuta badaude. Bestela,

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
4/2011	R16/2013	2013/09/09	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

kudeaketa edo zuzendaritza hori Euskal Autonomia Erkidegoan egiten denean. Irizpide horien arabera helbidearen lekua ezarri ezin den kasuetan, ibilgetuaren balio handiena dagoen lekua hartuko da kontuan”.

Zerga Administrazioko Estatu Agentziak esandakoaren arabera, ERAKUNDEA 1 erakundearen administrazio kudeaketa eta negozioen zuzendaritza Bizkaiko HELBIDEA 3 helbidean egon da sortu zenetik; horren aurka egiten du Bizkaiko Foru Aldundiak.

2. Zerga Administrazioko Estatu Agentziak bere tesia alderdi hauetan oinarritzen du, laburbilduz, gatazka planteatzeko aurkeztu zuen idatziaren 6. zuzenbide oinarrian azaldu bezala:

- a) ERAKUNDEA 2 erakundea da bazkide eta administratzaile bakarra, helbide fiskala Euskal Autonomia Erkidegoan duena.
- b) Administratzaile bakarraren ordezkariak, IZEN-ABIZENAK 2 jaunak, Bizkaiko helbidea du, halaber.
- c) 2004ko ekitaldiko urteko kontuen memorian jaso da erakundeak 2005eko ekainaren 29an akziodunen ohiko batzorde orokorra eta unibertsala egin zuela eta, bertan, kontu horiek onetsi zirela, ERAKUNDEA 2 erakundearen bulegoetan, HELBIDEA 3 helbidean.
- d) 2005eko ekitaldiko urteko kontuen memorian, jaso da erakundeak akziodunen ohiko batzorde orokorra eta unibertsala egin zuela eta, bertan, urteko kontuak Toledoko HELBIDEA 1 helbidean onetsi zirela eta 2006ko martxoaren 18ko Batzordearen bileran formulatu zirela, Toledon bilera egin baino lau egun lehenago emandako ziurtagiriak jasotakoaren arabera. Hala ere, Batzorde Orokorrak hartutako erabakiak ziurtatzen

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
4/2011	R16/2013	2013/09/09	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

dituen sinaduraren egiaztapena Bilboko IZEN-ABIZENAK 1 notarioak egin zuen, kontuan hartuta jarraitzen duela egiaztatzen 2006ko, 2007ko eta 2008ko ekitaldietako urteko kontuak onesten dituzten akziodun bakarraren erabakien aktak sinatzen dituzten pertsonen sinadura.

e) Erakundeko ahaldunen helbideak hauek dira: bi Bizkaian, bat Araban, bat Bartzelonan, bat Nafarroan eta beste bat Toledon (IZEN-ABIZENAK 3). Ahalmenak Bilboko IZEN-ABIZENAK 1 notarioaren aurrean eman ziren.

f) Toledoko HELBIDEA 1 aitortutako helbidean, "IZENDAPEN KOMUN"eko beste lau erakunde titular daude helbideratuta, eta beste bat gehiago helbide berean helbideratuta egon da.

g) 2010eko ekainaren 22ko eginbidean, agertutako alderdiak adierazi zuen sozietateak ez dituela langileak eta higiezinak jabetzan edo alokairuan, alegia, ez duela ez giza baliabiderik ez baliabide materialik administrazio kudeaketa garatzeko eta negozioen zuzendaritzarako, beraz, ERAKUNDEA 2 erakundea dela zerbitzuak ematen dituen. Eginbide berean adierazten da HELBIDEA 3 helbidean dagoela artxibatuta jasotako faktura, ordainagiri, BEZaren liburu, zerga aitorten, kontabilitateko liburu, eta abarri lotutako sozietatearen dokumentazio originala.

h) 2010eko ekainaren 29ko eginbidean jasotzen denaren arabera, IZEN-ABIZENAK 3 funtzio hauen arduradun da: erakundeko gerentea da eta ERAKUNDEA 2 erakundeak Espainiarako duen sustapeneko zuzendaria. Zerga Administrazioko Estatu Agentziak ulertu du "hori dela motiboa SOZIETATE TALDEAREN beste 50 sozietatetan antzeko funtzioak

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
4/2011	R16/2013	2013/09/09	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

egiteko, eta horrela justifikatzen da asko bidaiatzea eta bere funtzioak Toledon bertan etengabe ez egitea”.

i) Erakundea BBVak Bilbon duen sukurtsal batean irekita duen kontu baten titularra da, eta 2009. urtetik, Banco Popularrek Madrilen duen sukurtsal batean du beste kontu bat irekita.

j) Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren Madrilgo ordezkariak bereziak SOZIETATE TALDEAK Madrilen dituen bulegoetara 2010eko irailaren 28an eginiko bisitan, IZEN-ABIZENAK 4 jaunak (inbertsio nazionalen arduraduna) esan zuen “ERAKUNDEA 2 erakundeak erabakiak hartzeko zuen zentroa Euskal Autonomia Erkidegoan dagoela, eta horregatik dagoela zerga ondorioetarako lurralde horretan helbideratuta”.

Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren iritziz, azaldutako kontu horiek guztiak aztertuta ondoriozta daiteke Toledoko bulegotik zerbitzu teknikoa baino ez dela ematen, eta ezin dela administrazio kudeaketarekin eta zuzendaritza eraginkorarekin identifikatu, Bizkaian garatzen baita. Zerga Administrazioko Estatu Agentziak honen gainean Arbitraje Batzordeak 4/2009 Ebazpenean – 5/2008 espedientean emana– jarraitutako irizpidea eskatzen du.

3. Hurrengo zuzenbideko oinarrietan, planteamendu idatziak jarraian zehazten diren argudioak laburbiltzen ditu:

A. Horietako lehenengoa (1. Z.O.) gatazka honen jatorri diren gertakarien artean dagoen analogian datza; Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren ustez, proposatutako helbide aldaketa justifikatzen dute gertakari horiek, SOZIETATEA 2 sozietatean zeudenak (sozietate taldekoa) (idatzian okerra dago, "IZENDAPEN OKERRA" dio eta); beraz,

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
4/2011	R16/2013	2013/09/09	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

Zerga Administrazioko Estatu Agentziak dio “adierazgarria dela BFAk adierazitako berariazko adostasuna, 2010/06/2koa, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak Galizian duen ordezkari-tza bereziak proposatutako egoitza fiskalaren aldaketarekin”.

B. Idatziaren 8. zuzenbideko oinarrian, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak SOZIETATE TALDEAREN “modus operandi”a aipatzen du, eta zenbait gertakari azaltzen ditu “Bizkaian bazkide eta administratzaile bakarraren ordezkari-ek, Bizkaian helbideratuta, taldearen kudeaketa eraginkorra daramatenek hartutako erabaki orokorretan oinarritzen direnak”. Idatziaren hasieran 22 sozietate anonimo zerrendatzen dira, eta guztiek daukate IZENDAPEN KOMUNA izendapen komuna, bakoitza dagokion toponimoarekin; horien gainean dio 2009. eta 2010. urteen artean lurralde erkide honetatik foru lurraldera mugitu zirela. Zerga Administrazioko Estatu Agentziak baieztapen hauek egiten ditu:

“Sozietate hauetan ikusten da sorrerari, helbideratzeari, ordezkari-tzari, dibidendu pasiboen ordainketari, eta abarri buruzko erabakiak ez direla sozietate bakoitzean banaka hartzen, egoera juridikoa (fiskala eta merkataritzakoa) errealitatera egokitze-ko –helburu sozialaren garapena desberdina dela kontuan hartuta, errealitatea ere desberdina da, beraz, finantzaketa, inbertsio, ordezkari-tza eta beste behar batzuk bestelakoak dira–; baieztatu dugun bezala, ordea, Bizkaian bazkide bakarraren eta administratzailearen ordezkari-ek sozietate batzuetarako antzera hartutako erabaki orokorrak dira.

Kasu horietako batean ere ez da egon sozietate horien helbide aldaketa justifikatzen duen administrazio kudeaketaren kokalekua zehazten duten egoeren aldaketa nahikoa, eta pentsaezina da horien helbide eraginkorra aldatu izana; beraz, horrek finkoago egiten du

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>4/2011</i>	<i>R16/2013</i>	<i>2013/09/09</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen zerga-egoitza</i>

honako ideia hau: Bizkaitik hartu dira erabaki komunak, bereziki egoitza fiskala Bizkaira aldatzeari buruzkoa, zenbait sozietaterako, egoera erreala eta behar zehatzak alde batera utzita. [...]

Horrek zehazten du egoitza fiskala Bizkaira aldatu izanak, aldaketa erreala islatu beharrean, berregokitu egiten duela sozietateen egoera juridikoa eraketatik zegoen errealitatera”.

Jarraian, Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren idatziak sozietateen eraketaren, helbide aldaketaren, eskumenak ematearen eta dibidendu pasiboen ordainketaren ekitaldien adibide batzuk aipatzen ditu, IZENDAPEN KOMUNeko sozietateei kolektiboan eragiten dietenak, alegia, haize parkeen ustiatzaileei.

C. Zerga Administrazioko Estatu Agentziak, azkenik, gatazkaren planteamenduari buruzko idatziaren 9. zuzenbideko oinarrian argudiatzen du 2008ko azaroaren 24ko Arbitraje Batzordearen 1/2008 ebazpenaren – 1/2008 espedientean emana– eta 2009ko urtarrilaren 28ko Arbitraje Batzordearen 1/2009 ebazpenaren –2/2008 espedientean emana– bidez sortutako aurrekaria. Ebazpen horietan Arbitraje Batzordeak lurralde erkidean zerga ondorioetarako helbideratuta zeuden IZENDAPEN KOMUNEKO erakundeen administrazio kudeaketa eta negozioen zuzendaritza Bizkaiko Lurralde Historikoan egiten zela ulertu zuen eta, ondorioz, helbidea lurralde horretan zegoela aitortu zuen.

Bizkaiko Foru Aldundiak errekurtsioa jarri zuen ebazpen bien kontra, baina gaitzetsiak izan ziren 2010eko otsailaren 4ko eta ekainaren 16ko Auzitegi Gorenaren 3. salako epaien bidez, 86/2009 eta 155/2009 errekurtsioetan emanak, hurrenez hurren.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
4/2011	R16/2013	2013/09/09	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

4. Bizkaiko Foru Aldundiak 2013ko urtarrilaren 16ko alegazioen idatzian argudiatutako tesiaren oinarriak hauek dira, laburbilduz:

a) Aztertzen ari garen urteotan, erakundeak ez zuen jarduerarik hasi, eta "Arbitraje Batzordeak eta Auzitegi Gorenak ebazpenetan eta epaietan, hurrenez hurren, administrazio kudeaketaren eta negozioen zuzendaritzaren inguruan kontuan hartutako irizpidea ezaguna izanik ere, erakundeak berak parkearen sustapen eta eraikuntza aldiaren garatzen duen jarduerak planteatzen duen berariazkotasuna azpimarratu nahi du...".

Bizkaiko Foru Aldundiak alegatzen du "administrazio kudeaketak eta negozioen zuzendaritzak, kontabilitatearen ikuspuntua bakarrik kontuan hartuta, oso pisu gutxi duela parkearen sustapen eta eraikuntza aldiaren egin beharreko administrazio osagai tekniko hutsarekin erkatuta (inbertsioa egiteko erabakia, zein lurraldetan egiten den, "erosteko" lurrak, lizentziak, baimenak, eraikuntza, etab.). Beraz, oso garrantzitsua da haize parke bat eraikitzean dauden faseen berri izatea, administrazio eta zuzendaritza zeregin horiek duten pisu zehatza ebaluatu ahal izateko". Jarraian, idatzian fase horiek azaltzen dira:

- Sustapena: "aldi honetan kokalekuak aukeratzeko lanak, haizeak duen potentziaren analisia, lizentzien eskaera, gauzatze proiektua, bideragarritasun plana, eta abar egiten dira. Fase honetan, administrazio kudeaketa eta negozioaren zuzendaritza IZEN-ABIZENAK 2 jaunak, gerenteak, egiten zituen, batez ere; bere lan zentroa erakundearen helbide sozialean bertan zegoen, Toledon, HELBIDEA 1 helbidean, izan ere, fase honetan beharrezko jarduerak egiteko kudeaketa eta zuzendaritza IZEN-ABIZENAK 3 jaunak egiten

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
4/2011	R16/2013	2013/09/09	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

zituen eta ERAKUNDEA 2 erakundeak Gaztela-Mantxan zuen ordezkartzako gainerako taldeak”.

- Eraikuntza.
- Lanak eta mantentze lanak.

Bizkaiko Foru Aldundiak zera alegatzen du: “parkearen sustapen eta eraikuntza aldiko kudeaketa eta zuzendaritza lanak Toledoko ERAKUNDEA 2 erakundeko langileek gauzatzen dituztela kontuan hartuta, lan horiek hartu behar dira aintzat egoitza fiskalaren kokalekua zehazteko; izan ere, erakundeak eginiko jarduera bakarra da, eta horrek dakar erakundearen egoitza fiskala lurralde erkidean kokatuta dagoela, eraikuntza eta sustapen fase horretan erakundeak izandako administrazio lan guztiak Toledoko ERAKUNDEA 2 erakundeko langileek egin zituztelako”.

b) Alegazioen idatziko 5. zuzenbideko oinarrian, Bizkaiko Foru Aldundiak erakundeen administrazio kudeaketa eta negozioen zuzendaritza zein lekutan zentralizatuta dagoen zehazteko irizpideak aipatzen ditu, urriaren 15eko 2631/1982 Errege Dekretuak onetsitako Sozietateei buruzko Zergaren Araudiaren 22. artikuluan ezarritakoaren arabera; Auzitegi Gorenak, 2010eko martxoaren 12ko eta ekainaren 16ko epaietan garrantzi gabeak ez zirela erabaki zuen, nahiz eta betekizun hori indarrean ez egon. Erakundeko administratzaileen edo gerenteen helbide sozialari buruzko irizpidea dela eta, Bizkaiko Foru Aldundiak argudiatzen du, kasu honetan bezala, SOZIETATE TALDEko enplegatuak izanik, kontuan izan behar dela, egoitza fiskalaz gainera, zein lan zentrori atxikita dauden. Kasu honetan, erakundeko administratzaile bakarra

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
4/2011	R16/2013	2013/09/09	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

ERAKUNDEA 2 da, eta bere egoitza fiskala Arabako Lurralde Historikoan zegoen, Bizkaikora aldatu arte, 2010. urte erdi bueltan.

c) Ezin da ERAKUNDEA 2 erakundearen egoitza fiskala kontuan hartu; izan ere, batetik, erakundeari zerbitzuak ematen dizkion SOZietate TALDEko langileak hartu behar dira kontuan, bai eta zein lurraldetan ematen diren ere, eta, bestetik, erakundeak ERAKUNDEA 2 erakundearen zerbitzuak eskuratzeaz gainera, SOZietate TALDEaren beste erakunde batzuen ere eskuratzen du.

Azken horren gainean Bizkaiko Foru Aldundiak ohar hauek egin zituen:

- SOZietate TALDEAn Parkeen Sustapen eta Salmenten Saileko Batzorde Exekutiboa dago; hilerok batzen da, batez ere Madrilen. Batzorde honetan, erakundearen estrategiari, teknikei, ekonomia eta finantza estrategiei, juridikoei, inbertsiokoei buruzko erabakiak hartzen dira, besteak beste.
- Haize parkeak sustatzeko, eraikitzeko eta ustiatzeko erakundeek emandako kontabilitateko zerbitzuak ematean, hainbat langile dago tartean, ez bakarrik ERAKUNDEA 4 (sozietate taldekoak)/ERAKUNDEA 2 erakundeak, taldeko beste erakunde batzuetakoak ere, eta horien lan zentroak zenbait lurraldetan daude: Madrilen, Bizkaian eta Nafarroan. Saileko arduraduna eta erakunde eragiketa guztiei ikus-onesia eman behar dien arduraduna IZEN-ABIZENAK 4 da, eta bere lan zentroa Madrilen dago.
- BEZaren liburuei buruzko erantzukizuna Zerga Sailari dagokio, Nafarroan. Sail honek bere kargupean ditu zerga arloko eragiketa guztiak, besteak beste erreklamazioak edo errekurtsioak.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
4/2011	R16/2013	2013/09/09	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

d) SOZIJETATE TALDEaren sailak leku hauetan daude:

- Finantza saila: gehiena Madrilen.
- Sail juridikoa: Madrilen.
- Diruzaintza saila: Madrilen 2010. urtetik.
- Zerga saila: Iruñean.
- Zuzendaritza Nagusia: Madril eta Bilbo artean.

Bizkaiko Foru Aldundiak dio SOZIJETATE TALDEAK Madrilen IZEN-ABIZENAK 5 [sic] koordinatzaile zuen unitate bat izan zuela 2010. urteko abendura arte, parkeen sozietate titularrei laguntzeko. Urte horretatik aurrera, funtzio horiek beste pertsona batek hartu zituen bere gain, eta horrek Iruñean zuen lan zentroa.

e) Erakundeko helbidea Toledon ez egoteak ez dakar Euskal Autonomia Erkidegoan egon behar izatea; izan ere, administrazio kudeaketa eta zuzendaritza lurralde erkidean egiten da batez ere.

5. Bizkaiko Foru Aldundiaren alegazioen idatziak, amaieran, ondorio hauek ditu:

1. Adierazgarria da erakundearen egoitza fiskalari buruzko desakordioek garrantzia hartzen dutela erakundeek ustiapenari hasiera ematen dioten unetik. Une horretara arte, BEZa kudeatzeko, likidatzeko eta egiaztatzeko administrazio eskuduna egoitza fiskalari dagokiona da. Parkea sustapen eta eraikuntza fasean dago, eta horrek esan nahi du erakundea bere helbide fiskalari dagokion Administrazioari BEZa itzultzeko eskatzeko egoeran dagoela, BEZaren kuota handiak jasan dituelako. Ustiapen hasieraren unetik, jasandako BEZaren kuotak oso txikiak dira, eta parkeek

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
4/2011	R16/2013	2013/09/09	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

jasanarazitako BEZaren zenbateko handia daukate. Idatziak zera ondorioztatzen du:

“kontuan hartuta haize parkeen instalazioak lurralde erkidean daudela eta horiek guztiek, normalean, 6/7 milioi eurotik gorako eragiketa bolumena dutela, eragiketa guztiak instalazioak dauden lurraldean egiten direla eta/edo egoitza fiskala lurralde erkidera aldatu dela, zerga kontzeptu hori ordainarazteko eskumena duen administrazioa azken lurralde horretakoa da.

Zerga Administrazioko Estatu Agentziak esaten duenaren arabera, parkea ustiatzen hasteko unera arte, horien eraikuntzagatik eta ustiapenagatik [sic] jasandako kuota guztiak Bizkaiko Foru Ogasunak bidaliko lituzke; ordea, ustiatzen hasten denetik, BEZ guztia lurralde erkidean izango litzateke sorrarazia eta sartua.

2. “Erakundeak egindako jarduera hartu beharko litzateke kontuan, eta, bereziki:

1. Estrategiari, finantziarioari, inbertsioei, eta beste kontu batzuei buruzko erabakiak Parkeen Sustapen eta Salmenta Saileko Batzorde Exekutiboak hartzen ditu, eta horrek [...] bilera gehienak lurralde erkidean egiten ditu, Madrilen.

2. Proiektuaren eguneroko zuzendaritza ERAKUNDEA 2 erakundeak Toledon duen talde teknikoak egiten du; izan ere berak hartzen ditu beharrezko administrazio tramiteen (lizentziak, tasak, etab.), kontratazioen, eta fakturak eta abar onesteko eguneroko kudeaketaren gaineko erabakiak”.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
4/2011	R16/2013	2013/09/09	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

3. Gatazka honen gertakariak ez dira 1/2008 gatazkakoekin erkagarriak, ERAKUNDEA 5 –sozietate taldekoa da– erakundearen egoitza fiskalari buruzkoarekin, azaroaren 24ko Arbitraje Batzordearen 1/2008 Ebazpen honen helburu denarekin. Erakunde hori haize parkea ustiatzeko fasean zegoen; ERAKUNDEA 1 erakundeak, ordea, berearen sustapena baino ez zuen egin.

4. “Nahiz eta ezagutu Arbitraje Batzordeak eta Auzitegi Gorenak ERAKUNDEA 1 bezalako enpresa batean [ERAKUNDEA 2 erakundearen] ordezkariak zehatzak egiten dituen lanen gainean organismo horiek egiten duten balioespenari buruz zein irizpideri jarraitzen dioten, ezin dira bazter utzi ordezkariak egindako lanak gai teknikoekin lotuta daudela ulertzeagatik. Baieztapen honen bidez, Bizkaiko Foru Aldundiak dioenez, “ondorioztatu beharko litzateke, fabrikazioko erakunde baten kasuan, ekoizpena garatuko den planta eraikiko duten langile teknikoak baino ez dituela eta, beraz, hirugarrenen aurrean ekoizpen jarduerari hasiera eman ez diola, planta duen lekuan helbide fiskalik ez duela bere jatorrizko helbide fiskalaren leku berean egongo litzatekeelako [...]; modu berean, ordezkariak egindako kontrol jarduera bazter uztean kostuen kontabilitatea administrazio kudeaketaren kontzeptuaren zati ez dela ulertuko litzateke”

5. Zuzendaritza lanak, batez ere, lurralde erkidean egiten dira, bai eta kudeaketa lanak ere. Ondorio horietarako, kontuan hartu behar da non dauden sailak, Parkeen Sustapen eta Salmenta Saileko Batzorde Exekutiboak egiten dituen lanak eta IZEN-ABIZENAK 3 jaunaren funtzioak.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
4/2011	R16/2013	2013/09/09	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

6. Egoitza fiskala Toledon ez egoteak ez du baztertzen lurralde erkidean egotea, Madrilgo HELBIDEA 2 helbidean egindako jarduerak kontuan hartuta.

7. Ekonomia Ituneko 43.bederatzi, b) artikularen azken tartekaduran ezarritako irizpidea aplikatu liteke eta erakundearen higiezin balio handiena dagoen lekua kontuan hartu; horrela, bere egoitza fiskala lurralde erkidean dagoela ondorioztatuko litzateke.

6. Alegazioen bigarren idatzian, 2013ko apirilaren 8koan, espedientea ikustera eman ondoren, Bizkaiko Foru Aldundiak aurreko alegazioak berretsita baino ez zuen egin.

7. Espedientea ikustera emateko tramitean, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak alegazio berriak egin zituen, 2013ko apirilaren 29ko idatzi baten bidez; bertan berresten ditu aurrekari guztiak eta gatazkaren planteamendu idatziak jasotako zuzenbideko oinarri guztiak, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren alegazioei erantzuten die, jarraian labur azaltzen diren arrazonamenduen bidez:

1. Bizkaiko Foru Aldundiaren iritziz, BEZa ordainaraztearen ondorioak direla-eta dio egoitza fiskala zerga bat ordainarazteko ondorioetatik aparte dagoela: "egoitza fiskala dena da eta dagokion lurraldean dago, erakundearen kudeaketa eta zuzendaritza eraginkorra egiten den lekuaren arabera".

2. Batetik, zergapekoak helbide fiskal aitortua lurralde erkidean izan duen ekitaldietan bere jarduera haize parkearen sustapenera eta eraikuntzara mugatu delako baieztapena, eta, bestetik, eguneroko administrazio kudeaketako egitekoak ERAKUNDEA 2 erakundeak Toledon duen talde teknikoak egiten dituela eta, bitartean, erabaki estrategikoak SOZIETATE

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
4/2011	R16/2013	2013/09/09	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

TALDEko Parkeen Sustapen eta Salmenta Saileko Batzorde Exekutiboak hartzen dituelako baieztapena kontuan hartuta, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak hauxe dio: "administrazio doktrinak eta Arbitraje Batzordeak, bere ebazpenetan, ezarri du helbide fiskal bakarra dela posible eta, nahiz eta aitortu zuzendaritzako edo administrazio kudeaketako edo kudeaketa teknikoko jarduera batzuk lurralde batean garatzea, egoitza fiskala beste lurralde batean ezarri daiteke, "administrazio kudeaketaren eta negozioen zuzendaritza eraginkorren" "elementu definitzaile gehienak" bertan bildu daitezkeelako.

Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren iritziz, ERAKUNDEA 1 erakundeak lurralde erkidean egindako jarduerak, alde batetik, izaera teknikokoak dira (exekutiboak, huts-hutsean), baina zuzendaritzakoetatik oso ondo bereizten direnak, eta, bestetik, kudeaketa eta administrazio izaerako lanak gutxienekoak dira, jasotako korrespondentzia, jakinarazpenak eta fakturak helbide bakarrean zentralizatuz, gero UDALERRIA 1 udalerrira bidaltzeko (HELBIDEA 3 dagoen lekua), erakundearen administrazio kudeaketa eraginkorra egiten den lekua. Leku horretan du ERAKUNDEA 2 erakundeak egoitza fiskala, erakundeko administratzaile bakarrak eta SOZIETATE TALDEAren egituraren barruan haize parkeen sustatzaile diren sozietateei –baliabide material eta giza baliabiderik ez dutenak, beren kabuz egiteko– administrazioko eta kudeaketako zerbitzuak emateko ardura duen sozietateak.

3. Bizkaiko Foru Aldundiak galdetu bezala, Arbitraje Batzordearen R 1/2008 eta R 1/2009 ebazpenen eta Auzitegi Gorenaren 2010eko otsailaren 4ko eta ekainaren 16ko epaien aplikagarritasuna dela eta, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak gertakari hauek aipatzen ditu:

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
4/2011	R16/2013	2013/09/09	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

a) 1/2008 eta 2/2008 gatazkak Zerga Administrazioko Estatu Agentziak planteatu zituen, haize parkeen titular diren sozietate batzuen egoitza fiskal aitortuari buruz.

b) Sozietate horiek sozietate anonimo unipertsonal gisa eratu ziren, eta horien bazkide eta administratzaile bakarra ERAKUNDEA 2 erakundea da, SOZIJETATE TALDEko holding sozietatea.

c) Sozietate bakoitzak bere zerga egoitza deklaratu du dagozkien parkeak proiektatzen ziren lurraldean, nahiz eta helbide horiek zerga egoitza izateko beharrezko ziren baldintza bat ere ez bete. Ondorioz, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak gatazkak planteatu zituen Arbitraje Batzordearen aurrean, sozietateen egoitza fiskala, eratu zenetik, UDALERRIA 1 udalerrian kokatu behar zela zioelako, bertan helbideratzen baitziren sozietateen administrazio kudeaketa eta negozioen zuzendaritza.

d) Sozietateek SOZIJETATE TALDEko sozietate espezializatuekin sinatzen zituzten zerbitzuak errentamenduan hartzeko, instalazioak eraikitzeko, haize sorgailuak martxan jartzeko kontratuak, besteak beste, eta ez zeukaten langilerik, ez eta lokalik ere; beraz, ez zeukaten kudeaketarik berez egiteko gaitasunik.

e) ERAKUNDEA 2 erakundeko langileek erakundeen egoitza fiskal aitortu ziren lurraldeetan egindako zereginak, alde batetik, fakturak, korrespondentzia eta jakinarazpenak jasotzekoak ziren, gero UDALERRIA 1 udalerrira bidaltzeko; eta, bestetik, lurraldean zuzendaritzak hartutako erabakiak gauzatzea, izaera teknikoko zereginak, "administrazio kudeaketaren zentralizazio irizpidea

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
4/2011	R16/2013	2013/09/09	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

integratzeko ezin dutela balio, eta are gutxiago negozioen zuzendaritzarena".

Zerga Administrazioko Estatu Agentziak zera ondorioztatzen du:

"argi ikus daiteke SOZIJETATE TALDEAK gatazka honen helburu den sozietatea kudeatzeko eta zuzentzeko duen moduan eta aurreko ataletan deskribatutakoaren artean dagoen koherentzia –logikoa, beste alde batetik–, kontuan hartu gabe taldeak urteetan zehar eskuratutako profesionalizazio eta espezializazio maila altuagatiko desberdintasunak, taldearen berrantolaketetan ikusten den bezala, bai juridikoetan – ERAKUNDEA 2 erakundeak ERAKUNDEA 4 erakundeak xurgatu zuen, holdingaren buruaren egoitza soziala Arabatik Bizkaira aldatzea 2010. urtean–, bai kudeaketakoetan –arloak sail espezializatueta zentralizatzea, besteak beste zerga saila Nafarroan, diruzaintzakoa Madrilen, kontabilitatekoa UDALERRIA 1 udalerrian–, bai administraziokoetan –SOZIJETATE TALDEAREN kontabilitateko sistema integrala ezartzea–.

Aurreko guztia kontuan hartuta, bakarrik ondoriozta daiteke haize parkeen sozietate titularren helbide soziala zehazteko kontuan hartu beharreko irizpideak eta Arbitraje Batzorde honen 1/2008 eta 1/2009 ebazpenetatik eskuratutako ondorioak –gero Auzitegi Gorenak berretsi zituenak– erabat aplikagarriak direla gatazka honetan, baina horrek ez dakarkio ondorio horien lekualdaketa mekanikoa zergapekoari...". "

4. Bizkaiko Foru Aldundiak egindako alegazioari dagokionez, alegia, erakundearen helbide fiskala Toledon –bertan egiten dira parkeen lan teknikoak– dagoela erabakitzen ez bada, helbide hori lurralde erkidean - bertan egiten dira kudeaketako eta zuzendaritzako gainerako lanak-, eta

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
4/2011	R16/2013	2013/09/09	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

"ixteko klausula modura" Madrilen, HELBIDEA 2 helbidean, jarduera horiek gehienak egiten diren lekuan, kokatu beharko dela dioenari dagokionez, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak dio Bizkaiko Foru Aldundiak argudiatzen duela sailen edo zuzendaritza zentroen dispertsio handia dagoela: finantzakoa eta juridikoa Madrilen; diruzaintzakoa UDALERRIA 1 udalerrian eta Madrilen 2010etik; zergakoa Iruñean; zuzendaritza nagusia UDALERRIA 1 udalerrian eta Madrilen. Zerga Administrazioko Estatu Agentziak dio Bizkaiko Foru Aldundiaren arabera erabaki estrategikoak SOZIETATE TALDEaren Parkeen Sustapen eta Salmenta Saileko Batzorde Exekutiboan hartzen direla, hilerok Madrilen batzen direna eta, batzuetan, UDALERRIA 1 udalerrian edo Gasteizen, kiderik gehienek Bizkaian eta Madrilen dutela lan zentroa.

Zerga Administrazioko Estatu Agentziak ikusten du ERAKUNDEA2 erakundeak, erakundearen bazkide eta administratzaile bakarrak,

"enpresa eta antolaketa egitura bat duela ezarrita, denbora aldetiko eta geografia aldetiko dispertsioa bereizgarri dituen, osatzen duten sailen funtzionaltasun arrazoiengatik. Horiek ERAKUNDEA 2 erakundeak haize parkeen gainean hartzen dituen erabakien izaera instrumentala eta exekutiboa izaten jarraitzen dute. Erabaki horiek, hain zuzen ere, arlo hauetakoak: inbertsioen gauzatzea, juridikoa, finantzakoa, diruzaintzakoa, kontabilitatekoa eta zergakoa. Organo horiek, funtzio arloen egitura oinarri hartuta, bigarren maila batean dihardute, eta lehenengo mailako erabakiak eta estrategiak gauzatzen dituzte (ERAKUNDEA 2)".

Zerga Administrazioko Estatu Agentziak zera dio:

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
4/2011	R16/2013	2013/09/09	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

"Batzorde horri dagokionez, taldeko enpresa egitura osatzen duen organo bat gehiago izanik, "exekutibo" izendapenak berak adierazten duela bere funtzioa zein den: ERAKUNDEA 2 erakundeak hartzen dituen erabakiak gauzatzen ditu, eta, nolana ere, Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren datu basean dagoen informazioa kontuan hartuta, gutxienez zortzi kidek dute helbide fiskala Bizkaian.

Zergapekoa SOZIETATE TALDEko zati da, eta hori da, hain zuzen ere, osatzen duten sailen bidez, gatazkaren helburu den erakundearen administrazio kudeaketa eta negozioen zuzendaritza egiten duena.

[...]

Nahiz eta egia den zergapekoaren administrazio kudeaketa hori funtzioaren eta lurraldearen arabera ERAKUNDEA 2 erakundeko sailtan banatuta dagoen, argi dagoena da bere negozioaren zuzendaritza eraginkorra bere bazkide eta administratzaile bakarrak gauzatzen duela, gatazkaren planteamendu idatzian eta alegazioen idatzi honetan egiaztatzen den bezala".

Baieztapen hori oinarritzeko, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak euskal eta nafar prentsan argitaratutako informazioak ematen ditu, ERAKUNDEA 6 erakundearen (sozietate taldearen erakunde burua) egoitza fiskalaren eta sozialaren aldaketari buruzkoak, Arabatik Bizkaira, hain zuzen ere. Horien arabera, sozietate horrek aldaketa hori justifikatzen du UDALERRIA 1 udalerrian "zuzendaritza, kontabilitate eta administrazio egitura guztia dagoelako, eta, beraz, egoitza sozialak enpresaren jarduera errearen urratsari jarraitu behar dio eta dio erabaki logikoa dela, bertan baita konpainiak jarduera eta erabaki organoak dituen lekua".

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
4/2011	R16/2013	2013/09/09	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

Zerga Administrazioko Estatu Agentziak, bestalde, Arabako Batzar Nagusien saioen egunerokotik orri batzuk ere aurkeztu ditu, 2010eko ekainaren 7ko 86 zenbakiko osoko bilkurakoak. Bertan, "diputatu nagusiari zuzendutako interpelazioa jasotzen da, foru ogasunean eta Arabako industrian Gamesa enpresaren helbide soziala aldatzeak duen oihartzuna ezagutzeko". Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren idatziak diputatu nagusiaren erantzunaren zati batzuk aipatzen ditu; horietan, ERAKUNDEA 6 (sozietate taldearen erakunde burua) erakundearen erabakia.

“kronika jakina zela baieztatu zuen, lehenago edo geroago hartuko zen ebazpen batena, 2006. urtean dibisio aeronautikoa ERAKUNDEA 7 erakundeari saldu zitzaionetik, UDALERRIA 2 udalerriko parke teknologikoan dagoena. ERAKUNDEA 6 erakundeak (sozietate taldeko erakunde burua) egoitza soziala Gasteizen izan zuen, baina bi enplegaturekin baino ez, bi administratzaileekin, zehatzago esateko; izan ere, zuzendari guztiak eta gainerako langileak UDALERRIA 1 udalerrian zegoen negozio zentroan zeuden. [...] Urte horietan zehar, helbide soziala eta, beraz, fiskala, Araban zegoenez, Arabako Foru Ogasunean ordaindu zituen zergak. Egoera hori, guretzat, nolabait esateko, onuragarria izan zen; baina, egia esan, kontraesana zuen; izan ere, logikak berak eta auzitegien epaiek adierazten duten bezala, sinadura bat erabakien zentroa dagoen tokian helbideratuta egon behar duela jasotzen dute, eta, kasu honetan, UDALERRIA 1 udalerrian zegoen”.

5. Parkeen Sustapen eta Salmenta Saileko Batzorde Exekutiboak erabaki estrategiko handiak gauzatzen ditu, baina ez du erakundearen administrazio kudeaketa eta negozioen zuzendaritza egiten. Lan hori, administratzaile bakarraren ordezkari den aldetik, IZEN-ABIZENAK 2

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
4/2011	R16/2013	2013/09/09	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

jaunari dagokio. Bere lan zentroa Bizkaian dago. Bera da, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak dioen bezala, sozietatearen ibilbidearen ekintzarik garrantzitsuenetan esku hartzen duena, ordezkari gisa, eta berak egiten du Gaztela-Mantxako ERAKUNDEA 2 erakundeko gerenteak garatzen dituen zereginen gaineko kontrol eta ikuskaritza lanak.

8. Auzitegi Gorenak 2010eko otsailaren 4ko eta ekainaren 16ko epaietan egiaztatutako 1/2008 eta 1/2009 ebazpenetan (86/2009 eta 155/2009 errekurto zenbakiak), hurrenez hurren, Arbitraje Batzorde honek erabaki zuen gatazketan aipatzen ziren sozietateen egoitza fiskala ez zegoela helbide sozial eta fiskal aitortuan, beren titularpean zeuden haize parkeak zeuden lurraldean; eta horren arrazoia zen helbide horretan jarduera teknikoak egiten zirela batez ere, parkearen proiektu eta eraikuntzakoak. Ordea, hainbat zantzu zegoen enpresaren administrazio kudeaketarako eta negozioen zuzendaritzarako jarduerak eurak Bizkaian zeuden SOZIETATE TALDEko sozietateek egiten zituztela esateko, zehatz esateko UDALERRIA 1 udalerriko LEKUA 1 lekuan.

Bizkaiko Foru Aldundiak argudiatzen du aurreko irizpideak “eragingo lukeela ondorioztatzera, fabrikazioko erakunde baten kasuan, bere ekoizpena garatzeko planta eraikitzen ari den langile teknikoak baino ez dituela eta, beraz, ez diola hirugarrenen aurrean jarduerari hasiera eman, ez duela egoitza fiskalik bere planta dagoen lekuan, jatorrizko helbide fiskalean kokatuta egongo litzatekeelako”. Deskribatu dugun egoera Arbitraje Batzordean aipatutako ebazpenen gertakariei dagokiena da, eta ondorioa –Bizkaiko Foru Aldundiak zentzugabe jotzen omen duena– ebazpen horietatik eskuratzen duguna. Jakina da egoera hori talde bati dagokion sozietate batean baino ezin dela gertatu, eta bertan posible da sozietateetako bat instalazioaren eraikuntza jarduerara baino ez dedikatzea (eta, beraz, langile teknikariak baino ez izatea), eta enpresa zuzendaritzako eta administrazio kudeaketako zereginak taldeko beste sozietate batean egitea. Egoera hori, ordea, pentsaezina da, erakunde

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
4/2011	R16/2013	2013/09/09	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

independentea denean, beste batzuekin loturarik ez duenean, nahitaez berak egin behar dituen bere helburuen zeregin teknikoak eta enpresa zuzendaritzari eta kudeaketari zuzenean dagozkionak eta, beraz, horretarako baliabideak izan behar dituen.

Bi kasu horietan (talde bateko sozietatea izatea eta sozietate independentea izatea) erakundearen egoitza fiskalak administrazio kudeaketa eta negozioen zuzendaritza egiten den lekuan egon beharko du. Hori dela eta, 1/2008 Ebazpenean, 6. zuzenbideko oinarrian, zera aipatu genuen:

erakunde interesduna sozietate talde batekoa izateak ez du egoitza fiskala zehazteko irizpideen aplikazioa erabat aldatzen. Talde batekoak diren sozietateek indibidualtasun juridikoa dute; ondorioz, egoitza fiskala zehazteko irizpideek taldeko kide bakoitzari zuzenduak izan beharko dute. Bestela esanda, taldea egoteak ez du esan nahi garrantzi gabea denik, taldekoa den sozietate baten egoitza fiskala zehazteko, administrazio kudeaketa eta negozioen zuzendaritza sozietateak berak edo taldeko beste erakunde batek egitea, jarduera horiek taldeko beste sozietate batek egiten baditu bere egoitza fiskalak izan beharko duela horretarako lekua, Ekonomia Ituneko aipatutako betekizuna [43.lau artikulua] kontuan hartuta.

Bizkaiko Foru Aldundiak argudiatzen du aipatutako ebazpen horien ondorioak ez direla mekanikoki beste kasu batzuetara zabaldu behar, besteak beste honetara, aurrekoetatik desberdinak dira eta, bere iritziz. Kontu horri dagokionez dio “desberdintasun garrantzitsuak” daudela ERAKUNDEA 1 erakundearen –gatazka honek aipatzen duena– eta ERAKUNDEA 5 erakundearen artean –1/2008 ebazpenaren bidez erabakitako gatazkaren helburua–, lehenengoak haize parke baten sustapena egin duelako, alegia, oraindik ez dela eraikuntza eta ustiapen faseetan sartu, eta bigarrena azken

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
4/2011	R16/2013	2013/09/09	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

fase horretan zegoelako. Baina desberdintasun hori garrantzi gabea da, erakunde baten edo bestearen administrazio kudeaketa eta negozioen zuzendaritza zein lekutan egiten den zehazteko.

Alderantziz, gatazka honen alderdiek aipatu dituzten egoera guztien balioespenak, osotasunean, zera ondorioztatzera garamatza: aztertu den egoera ez da bereizten Arbitraje Batzorde honen 1/2008 eta 1/2009 ebazpenen helburu izan zirenetatik eta, bestalde, SOZietate TALDEAK horietan guztietan erakunde egitura bera erabili duela parkeen “sustapenerako eta salmentarako”, horien oinarrizko ildoak hauek direla: a) Taldearen holding batek erabat partaidetutako sozietatea eratzea, helbide fiskala parkea dagoen lurraldean duena; b) Sozietate horrek (“IZENDAPEN KOMUNA X, S.A.”) parkea eta eraikuntza bera eta instalazioak eraiki aurretik prestakuntzarako lanak egitea eta, horretarako, taldeko enpresa teknologikoekin kontratu egokiak egitea; c) Parkearen jabetzako sozietatearen transmisioa, kapitalaren ordezkariak akzioen salmentaren bidez.

Eskema bera errepikatzeak azaltzen du “haize parkearen sozietateen” sozietate egintzak eta eragiketak bereziak ez izatea bakoitzari dagokionez, baizik eta batera egitea sozietate horien taldeetarako. Akzioak saldu arte, “haize parkearen sozietateak”, egia esan, egitura tekniko sinpleak dira (eraikitzen ari diren industria instalazioak), banakako enpresa kudeaketarik gabeak; izan ere, kudeaketa taldean egiten da sozietate guztientzako, SOZietate TALDEko organo nagusien eskutik. Horrenbestez, horiek beharrezko dituzten baliabide pertsonalak eta materialak dituzten lekuan. Aurrekari guztiak kontuan hartuta, leku hori, batez ere, UDALERRIA 1 udalerriko LEKUA 1 da (Bizkaia).

9. Ez dio aurreko ondorio horrek aurka egiten SOZietate TALDEKO organo nagusi batzuk Bizkaiko Lurralde Historikotik kanpo egoteari, Bizkaiko Foru Aldundiak azpimarratzen duen eta Zerga Administrazioko Estatu

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
4/2011	R16/2013	2013/09/09	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

Agentziak ezeztatzen duen bezala. Hori horrela, Bizkaiko Foru Aldundiak Parkeen Sustapen eta Salmenta Saileko Batzorde Exekutiboaren funtzioak azpimarratzen ditu, bai eta organo hori normalean Madrilen biltzea ere. Bizkaiko Foru Aldundiak baieztatu du batzorde horrek parkeen inguruko kontu guztien erabaki estrategikoak hartzen dituela, ikuspuntu guztietatik: teknikitik, ekonomia eta finantzakoetatik juridikoetatik, etab. Zerga Administrazioko Estatu Agentziak, ordea, ERAKUNDEA 2 erakundearen erabaki exekutiboak baino ez dizkio esleitzen. Horren inguruan baieztatu behar da SOZIEATE TALDEAREN antolaketa egitura ez dela gatazka honetan aztertu eta, beraz, Arbitraje Batzorde honek ez dakiela zehatz zein diren batzorde horren funtzioak eta jokabidea; alegia, ez daki organo hori den haize parkeei buruzko erabaki nagusiak hartzen dituen edo, ordea, oinarrian organo tekniko den, Taldeko organo nagusien mendeko.

Hala ere, batzorde horren edo Bizkaiko Lurralde Historikotik kanpo dauden beste organo batzuen zeregina edozein dela ere, espedientetik ondorioztatzen den bezala, besteak beste diruzaintzaren edo zerga gaien gaineko ardura dutenena, hori ez da erabakigarria baztertzeko "haize parkeen sozietateen" administrazio kudeaketa eta negozioen zuzendaritza SOZIEATE TALDEKO organo nagusiek egiteko, batez ere, beraiek hartzen baitituzte enpresako erabaki nagusiak. Hori horrela, 2011ko maiatzaren 2ko R 11/2011 Ebazpenean –29/2008, 30/2008, 32/2008, 38/2008, 39/2008 eta 40/2008 espedienteak eta metatuak, 13. zuzenbideko oinarria– baztertu egiten dugu garrantzi erabakigarria duenik administrazio organoen eta bazkideen batzar nagusien bilerak zein lekutan egiten ziren. Jarrera hori oinarritzeko, Auzitegi Nazionaleko Administrazioarekiko Auzien Salaren 7958/2005 epaia, ekainaren 20koa, 426/2002 errekurtsokoa, argudiatu genuen, autonomia erkidegoei lagatako zergen inguruko gatazkak konpontzeko Arbitraje Batzordearen 2002ko apirilaren 4ko erabakiaren aurkako errekurtsoa gaitzetsi zuena, ERAKUNDEA 8 sozietatea Madriletik Bartzelonara aldatzea eraginik gabea zela zioena, nahiz

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
4/2011	R16/2013	2013/09/09	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

eta konpainiako lehenengo exekutiboak eta aholkulari batek Bartzelonan zuten beren helbidea eta bertan garatzen zuten beren jarduera. 1115/2006 zenbakiko kasazio errekurtsioa, epai honen aurka jarri zena, Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salak gaitzetsi zuen, 2011ko apirilaren 13ko epaiaren bidez.

Era berean, 2012ko uztailaren 26an eman genuen R 10/2012 Ebazpenean – 7/2010 espedientea, 7. zuzenbideko oinarria– baieztatu genuen kontabilitatea kudeaketako eta zuzendaritzako gainerako jarduerak egiten ziren leku desberdinean egitea ez dela, berez, erakundeen administrazio kudeaketa eta negozioen zuzendaritza zein lekutan egiten den zehazteko erabakigarria, eta esanguratsutzat jo genuen erakundeak enpresa edo sozietate talde baten barruan egotea. Kasu horretan ere (ibídem) adierazi genuen administrazio kudeaketa eta negozioen zuzendaritza ez direla irizpide bereizgarriak eta bata eta bestearen arteko desakordioaren kasuan bigarrenak izan behar duela lehentasuna, enpresaren oinarritzko erabakiak hartzen diren leku gisa.

Hori guztia kontuan hartuta, zera ondorioztatzen dugu: ERAKUNDEA 1 erakundearen administrazio kudeaketa eta negozioen zuzendaritza, eratu zenetik, ERAKUNDEA 2 erakundeak, bazkide bakarrak eta administratzaileak, bere jarduerak egiten zituen lekuan egiten zirela. Leku hori Bizkaiko UDALERRIA 1 udalerriko LEKUA 1 da, eta ez da eraikin zehatza adierazi behar.

10. Aurreko ondorioa kontuan hartuta, ez da beharrezkoa Ekonomia Itunaren 43.lau.b) artikulua ezarritako irizpide subsidiariora jotzea, ibilgetuaren balio handiena datorren lekuarena.

Hori kontuan hartuta, Arbitraje Batzordeak hauxe erabaki du:

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
4/2011	R16/2013	2013/09/09	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

ERABAKIA

ERAKUNDEA 1 (IFZ LZZZZZZZZ) erakundearen helbide fiskala, eratu zenetik, Bizkaiko UDALERRIA 1 udalerriko LEKUA 1 dela aitortzea.